

# KULTURA-OHITUREI BURUZKO PANELA

7. JASOALDIKO DATUEN ANALISIA



**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

# AURKIBIDEA

1. <b>Sarrera</b>	3
2. <b>Aztergaia</b>	4
3. <b>Emaitzak</b>	5
3.1. Aldaketa-ibilbideen deskribapena: Covid-19aren eragina	5
3.2. Bloke koiunturala: Covid-aren osteko joerak kultura-ohitura digitaletan	23
3.3. Aldaketaren pertzepzio subjektiboa: faktore soziologikoak bigarren mailan	31
4. <b>Azken iruzkina</b>	36
ERANSKINA	38
• 1. eranskina: Taula osagarriak	38
• 2. eranskina: Aldagaien kodetzea	43

Kulturaren Euskal Behatokiak, Ohiturei buruzko Panelaren bidez, herritarren kultura-ohituren berri jaso eta eremu horretan sakontzea du xede. Ikerketa hori egiteko, lagin-unitate baten jarraipena egiten da denbora jakin batean, jarraipen horrek maila indibidualean aldaketa-patroien ezaugarriak zehazteko lagungarri diren inguruabarrak behatzeko aukera ematen baitu.

Lagina 204 pertsonen osatuta dago, eta denek ala denek parte-hartze kulturalaren gutxieneko atalase bat gainditzen dute. Hura orekatzen duten 3 irizpidetatik abiatuz eraikitzen da, aldaera hauen arabera:

- Lurralde historikoak (Araba % 15,7; Gipuzkoa % 35,3; Bizkaia % 47,5; pertsona bat EAetik kanpo dago gaur egun)
- Sexua (emakumeak % 50, gizonak % 50)
- Adina (% 50,5, 2000-1988 urte bitartean jaioak; % 49,5, 1987-1976 urte bitartean)..

Zazpigarren jasoaldi honetan, ordezte-tasa % 5ekoa izan da, eta oinarrizko irizpideei erreparatuz ordeztu dira. Landa-lana 2021eko urtarrilaren 18tik 2021eko otsailaren 17ra egin zen. Covid-19a dela eta, 2020ko lehen erdiko jasoaldia ez zen egin.

Txostenak hiru atal ditu:

1. **Aldaketa-ibilbideak.** Hautemandako aldaketa-ibilbideak deskribatzen dira, partaidetza-mailen indizeak erai-kiz. Igotzeko, mantentzeko edo jaisteko joerak sortzen dira, parte-hartze motaren arabera (hartzailea, sortzailea edo digitala).
2. **Covid-aren osteko joerak kultura-ohitura digitaletan.** Jasoaldi honetan, kultura-ohitura digitaletan joerak hautemateko berariaz diseinatutako modulu bat gehitu da, inkestatutako pertsonen ohitura pertsonalei eta gizarte-mailako aldaketari buruz duten iritziari buruzko balorazioarekin.
3. **Aldaketaren pertzepzio subjektiboa.** Atal hau inkestatutako pertsonen beren parte-hartze kulturala nola aldatu den azaltzeko ematen dituzten arrazoiei buruzkoa da, eta aurreko jasoaldiekin alderatzen dira arrazoi horiek.

Gaur egungo testuinguruan, Covid-19aren eragina islatzen du panelak, eskariaren eta kultura-ohituren ikuspegitik. Beraz, informazio baliotsua ematen du. Beste azterlan batzuetan Covid-19aren inpaktu heterogeneoari buruz egindako behaketa asko indartzen ditu, eta eragin hori hobeto ezaugarritzen laguntzen du, publikoetan oinarritutako ikuspegitik egiten baita. Gogoratu behar da parte-hartze kulturalaren gutxieneko atalase bat gainditzen duten pertsonen osatzen dutela paneleko lagina. Hau da, gutxienez ohiko publiko kulturaltzat har daitezkeen pertsonak aztertzen dira.

Emaitzak eskema modura aurkezten dira, eta, kasu bakoitzean, blokearen asmoak erakusten dira: neurgaiak, neurtzeko modua, emaitzak eta interpretazio-iruzkina. [Eranskinean](#) aldagaien eta beren kodetzearen xehetasunak aurki daitezke.

Panelak ikuspegi multidimentsional batetik heltzen dio parte-hartzeari:

1. Lehenik, kontzepziorik klasikoenarekin bat eginez, parte-hartzea pasiboa edo hartzailea izan daiteke, eta, ikuspuntu horretan, eragilea kulturaren ikusle (hartzaile) da.
2. Bigarrenik, badira kulturalan parte hartzeko modu aktibo edo sormenezkoak. Jarduera horietan, eragileak protagonismoa hartu eta bere gaitasunak garatzeko aukera ematen zaio. Arte-jardun amateurak eta kulturaren asoziazionismoa dira parte hartzeko modu horren adibide.
3. Azkenik, aldaketa digitalak dimentsio berri bat ekarri du, baita parte-hartze sortzailea edo parte-hartze hartzailea ahalbidetu ere, betiere berezko aukerak eta mugak dituen bitarteko desberdin baten bidez. Horrela, parte-hartze digitalaz ere hitz egiten da.

Hala, panelaren kasurako, parte hartzeko modu bakoitzak zer eragin duen erakusteko inkestaren itemetatik abiatuz (eranskinean daude):

- Parte-hartze hartzaileak kontsumo kultural pasiboari egiten dio erreferentzia, hainbat jardueraren bertaritze- eta maiztasun-maila oinarritzat hartuta. Horrela, horietako bakoitzaren intentsitatea neurtu eta bereizten da. Zehazki: zenbat liburu irakurtzen den, eta zenbatetan joaten den zinema, kontzertu, ikuskizun eta erakusketetara.
- Parte-hartze sortzaileak berriaz adierazten du arte-praktika jakin bat *amateur* mailan egiten den ala ez. Alegia, guztira egiten diren 13 praktiken batura da, hala nola margotzea, idaztea, argazkiak egitea, bideoak egitea... Horrela, kasu horretan, aurrekoan ez bezala, ez da bereizketarik egiten, jarduera bakoitza gauzatzeke intentsitate-mailaren arabera.
- Azkenik, parte-hartze digitalean, harmena baino ez da aintzakotzat hartzen. Hau da, jardueren kontsumoa edo gauzatze digitala hartzen da kontuan (bitarteko digitalak hautatzea irakurtzeko, zinema eta erakusketak ikusteko eta abarretarako). Irakurketa errazteko, emaitzei buruzko atalean «parte-hartze digitala» terminoa erabili arren, «parte-hartze digital hartzaileaz» jardungo gara.

Panelaren ekarpen nagusia da gaitasuna duela pertsonen denboran zehar **parte-hartze kulturalaren mailan** izan dituzten **aldaketak** azaltzeko, modu hartzailea, sortzailea eta digitala bereizita. Ikerketa honen helburu nagusia da ulertzea zer faktore erlazionatzen den parte-hartze mailen aldaketarekin eta nola erlazionatzen den.

Edizio honetan, **funtsezko testuinguru-faktore bat hartu behar da kontuan: Covid-19a** eta hark eragindako itxialdiak nahiz kultura-jardueraren murrizketak. Inguruneko fenomeno hori aintzat hartuta soilik interpretatu ahal izango dira emaitzak behar bezala.

### 3.1. Aldaketa-ibilbideen deskribapena: Covid-19aren eragina

#### Xedea

- Jasoaldien arteko aldaketa-ibilbideak deskribatzea, kontuan hartuta Covid-19ak parte hartzeko moduetan eta haiek osatzen dituzten jardueretan izandako eragin diferentziala.
- Sexuen eta adin-taldean (30 urtetik beherakoak eta gorakoak) arteko aldeak behatzea.

Gauza garrantzitsu bat gogoratu behar da: datuak irakurtzeko orduan, kontuan hartu behar da panelak, bere helburu nagusiak direla-eta, ez duela erabiltzen lagin adierazgarririk edo ausazkorik. Horregatik, emaitzak ezin dira modu demoskopikoan irakurri; alegia, ezin dira estrapolatu biztanleria guztira. Izan ere, gutxieneko ohiko kultura-kontsumo bat duten pertsonen soilik osatzen dute lagina.

Datuak ez dira zorrotz eta era absolutuan interpretatu behar; joeratzat hartu behar dira, eta, betiere, lagina osatzen duen profilararen barruan.

#### Zer neurtzen da?

Aldaketen gaineko behaketa bat da, azken jasoaldietako parte-hartze mailak alderatuz egina.

5 ibilbide neurtzen dira: igoera nabarmena, igoera ertaina, mantentzea, jaitsiera ertaina eta jaitsiera nabarmena. Gauza bera egiten da 3 parte-hartze moduetako bakoitzarekin.

Jasoaldiak binaka hartzen dira bilakaera erakusteko. Hau da, 2. jasoaldiko datuen artean sartu dira soilik 1. jasoaldian ere parte hartu zuten pertsonenak, 3. jasoaldiko datuen artean 2.ean ere parte hartu zutenenak, eta abar. Jasoaldi guztietan ordezkapen-tasa bat dago: batzuek ikerketa uzten dute, eta beste batzuk sartzen dira. Horrela, informazio-galera optimizatzea lortzen da; bestela, jasoaldi guzti-guztietan parte hartu duten pertsonen datuak bakarrik hartuko balira, informazio-galera oso handia izango litzateke.

#### Nola neurtzen da?


Aztergai den aldagaia 3 urratsetan eraikitzen da:

1. Lehenik, parte-hartze modu bakoitzerako eskala bat eratzen da, 0-1 bitartean aldatzen dena: 0 parte-hartze nulua maila da, eta 1 gehieneko parte-hartze maila. Norbanakoak 0 eta 1 zenbakien artean kokatzen dira, eskalak osatzen dituzten jardueretan duten parte-hartze mailaren arabera (2. eranskinean zehaztua).
2. Bigarrenik, jasoaldien arteko konparazioa egiteko, norbanakoak eskala bakoitzean (hartzailea, sortzailea, digitala) erreferentziazko jasoaldian eskuratutako puntuazioari aurreko jasoaldian eskuratutako puntuazioa kentzen zaio.
3. Hirugarren urratsa: estatistikaren ikuspuntutik, une honetan aldagai jarraitu kuantitatibo bat jasotzen da. Aldagai hori 5 kategoriatan birkodetzen da, eta, hartara, kategoriaren arabera aldagai kualitatibo bat sortzen da: igoera nabarmena, igoera ertaina, mantentzea, jaitsiera ertaina eta jaitsiera nabarmena. Katetoria bakoitza definitzeko erabilitako irizpidea orri-oinean azaltzen da<sup>1</sup>.

## Emitzak eta eztabaida

Aurreko jasoaldietako emitzekin alderatuta, Covid-19ak parte-hartze kulturean eragindako etena ikus dezakegu (1. grafikoa).

1. grafikoa. **2. eta 7. jasoaldietako parte-hartze mailen bilakaera**




<sup>1</sup> Aldagai jarraitua kategorizatzeo erabilitako irizpidea dispertsio tipikoaren balioa da. Aldaketa nabarmenak dispertsio tipikoaren urkilatik kanpo geratzen direnak dira. Ertainak, berriz, dispertsio tipikoaren balioaren eta haren erdiaren artean kokatzen direnak. Azkenik, mantentzea hau izango litzateke: Oren inguruko dispertsio tipikoaren erdia. Dispertsio tipikoa 0'1 bada, -0'1 edo +0'1 baino handiagoa den aldaketa oro nabarmena izango da. Aldiz, -0'1 eta -0'05 arteko aldaketak ertainak izango dira (gauza bera zeinu positiboko aldean). Beraz, mantentzea definitzen duen urkila  $\pm 0'05$  da, Oren inguruan.

Konfinamendu zorrotza ezarri zuten garaiari zegokion inkesta ezin izan zen egin; hala ere, datuetan islatzen da oraindik ez gairela itzuli nolabaiteko normaltasunera, eta horrek erakusten du eragina denboran luzatzen ari dela.

Datuek berretsi dute **parte-hartze hartzaileak beherakada handia izan duela, eta jaitsiera hori zertxobait konpentsatu dela parte-hartze digitalaren eta sortzailearen bidez**. Ikus daitekeenez, modu guztien baturak txikiagoa izaten jarraitzen du, eta, beraz, konpentsazioa partzialtzat baino ezin da hartu. Bestalde, mantendu ez ezik, parte-hartzaile digitala eta sortzailea areagotu egin dira.

Parte-hartze moduen pisutik guztizkoa berezita, are hobeto ikus daitezke inpaktuak (2. grafikoa)..

2. grafikoa. **Parte-hartze kulturalaren modu bakoitzaren banaketa jasoaldiz jasoaldi (%)**




Parte-hartze kulturalaren guztizkoa alde batera utzita, **parte-hartze digitala nagusitu da**, zalantzarik gabe. Presentzialtasuna nabarmen murriztu da, eta **parte-hartze sortzaileak, berriz, pisua hartu du**.

Beraz, indartu egin da kultura-kontsumoaren zati handi bat bitarteko digitalen bidez egiteko joera; horrekin batera, parte-hartze sortzaileak protagonismo handiagoa hartu du konfinamenduan.


Zehazki, sexuaren araberako aldeak behatuz gero, nabarmentzekoa da emakumeek jarduera hartzaile gehiago egin dituztela, bai Covid-19a baino lehen, bai jasoaldi honetan (3. grafikoa). Aldeak txikiagoak izan arren, gizonak baino sormen-jarduera gehiago egin dituzte; dena den, aldeak berdindu egin dira jasoaldi honetan. Hau da, parte-hartze sortzailea gehiago hazi da gizonen artean. Bestalde, bi sexuen parte-hartze digitala antzekoa izan da 6. jasoaldian, baina Covid-19aren ondoren zertxobait gehiago handitu da gizonen artean.

3. grafikoa. **Parte-hartze kulturalaren maila modu desberdinetan 6. eta 7. jasoaldietan, sexuaren arabera (%)**



Adinari erreparatuta (4. grafikoa), parte-hartze hartzaileari dagokionez, nabarmentzekoa da Covid-19ak inpaktu txikiagoa izan duela 30 urtetik gorakoen artean. Gazteagoek, hasiera batean, parte-hartze sortzaile eta digital handiagoa izan dute, eta bi kasuetan, bi adin-taldeetan, Covid-19aren eragina positiboa izan da.

4. grafikoa. **Parte-hartze kulturalaren maila modu desberdinetan 6. eta 7. jasoaldietan, adinaren arabera (%)**






## Parte-hartze hartzailea

Jaitsiera nabarmena izan da jasoaldi honetako ibilbide nagusia (% 56,2), eta, jaitsiera ertainarekin batera, lau pertsonatik hiruk izan dute bilakaera hori (5. grafikoa).

5. grafikoa. **Parte-hartze hartzailearen aldaketa-ibilbideak 6. jasoalditik 7. jasoaldira (%)**



Mantentzea % 20,1ekoa izan da; datua sakonago aztertuta, ikusiko dugu aurreko jasoaldian parte-hartze hartzailea baxua zela jada (1. eranskineko taula); beraz, arrazoizko datua dirudi, inguruabarrak gorabehera.

Gauza bat kontuan hartu behar dela erakusten digu horrek; bistakoa izan arren, garrantzitsua izan daitekeen zerbait: **parte-hartzea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da inpaktua jasan izanaren sententzia**. Hau da, publiko guztiak ez dituzte pandemiaren ondorioak modu berean jasan: parte-hartze kulturalari dagokionez, pertsona batzuek erabat aldatu behar izan dituzte beren ohiturak pandemiagatik, eta horrek ondorio psikologikoak eragingo zituen; beste batzuentzat, berriz, esperientzia askoz ere eramangarriagoa izan da (berritoki diogu, parte-hartze kulturalari dagokionez).

Parte-hartze hartzailearen eskala osatzen duten praktikak aztertuz gero, desberdintasun handiak antzematen dira beraien artean:

- **Irakurketak ez du ondorio aipagarriarik jasan;** izan ere, praktika indibiduala da funtsean, eta eremu pribatuan egiten da.
- Aldiz, **kontzertuetara joatea izan da praktikarik kaltetuena;** horrek agerian uzten ditu sektoreak pandemian zehar izandako arazo larriak.
- Tartean, berriz, neurri sanitarioen eragina nabarmen jasan duten bertaratzeak daude. Dena den, praktika horiek hobeto egokitu dira jende-pilaketak eta publikoaren joan-etorriak kontrolatzeko neurrietara.

1. taula. Parte-hartze hartzaileko jarduerak 6. eta 7. jasoaldietan eta aldearen ehunekoa (Jarduera hori gutxienez behin eginda azken 6 hilabeteetan)

	6. jasoaldia	7. jasoaldia	Aldearen ehunekoa
Kontzertuak	75,3	18,1	<b>% -76,0</b>
Liburuak	76,8	75,3	<b>% -1,9</b>
Zinema	79,4	33	<b>% -58,4</b>
Ikuskizunak	57,7	25,8	<b>% -55,3</b>
Erakusketak	54,6	29,4	<b>% -46,2</b>
Liburutegiak	53,6	36,1	<b>% -32,7</b>

Eskariari buruzko datuek erakusten dute pandemiak eta jarduera kolektiboari ezarritako osasun-neurriek **inpaktu desberdina** izan dutela sektore bakoitzean.

Hasteko, sexuei erreparaturaz gero (2. taula), parte-hartze hartzailearen eskala orokorrak erakusten zuenez, gizonak jarduera hartzaile gutxiago egin dituzte. Gainera, inpaktua berdina edo nabarmenagoa izan da gizonen artean, bereziki kontzertuei, erakusketei eta liburutegiei dagokienez.

2. taula. Parte-hartze hartzaileko jarduerak 6. eta 7. jasoaldietan, eta aldearen ehunekoa sexuaren arabera (Jarduera hori gutxienez behin eginda azken 6 hilabeteetan)

	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Emakumezkoak	Gizonezkoak
	6. jasoaldia	7. jasoaldia	6. jasoaldia	7. jasoaldia	Aldearen ehunekoa	Aldearen ehunekoa
Kontzertuak	72,2	23,7	78,4	13,4	<b>% -67,2</b>	<b>% -82,9</b>
Liburuak	86,6	84,5	67	66	<b>% -2,4</b>	<b>% -1,5</b>
Zinema	81,4	37,1	77,3	28,9	<b>% -54,4</b>	<b>% -62,6</b>
Ikuskizunak	68	34	47,4	24,7	<b>% -50</b>	<b>% -47,9</b>
Erakusketak	52,6	34	56,7	24,7	<b>% -35,4</b>	<b>% -56,4</b>
Liburutegiak	64,9	46,4	42,3	25,8	<b>% -28,5</b>	<b>% -39</b>

Adinari erreparatuta (3. taula), lehenik eta behin ikusten da gazteenak aktiboagoak direla kontzertuetan eta zinematan; gainerakoetan, berriz, 6. jasoaldiko mailak nahiko antzekoak dira. Covid-19aren eraginak negatiboagoak izan dira 30 urtetik gorakoentzat ikuskizunen kasuan, eta 30 urtetik beherakoentzat liburutegien kasuan.


3. taula. Parte-hartze hartzaileko jarduerak 6. eta 7. jasoaldietan, eta aldearen ehunekoa adinaren arabera (Jarduera hori gutxienez behin eginda azken 6 hilabeteetan)

	30 urtetik beherakoak		30 urtetik gorakoak		<30	>30
	6. jasoaldia	7. jasoaldia	6. jasoaldia	7. jasoaldia	Aldearen ehunekoa	Aldearen ehunekoa
Kontzertuak	78,9	18,2	72,1	18,8	-76,9	-73,9
Liburuak	75,6	72,7	77,9	76,9	-3,8	-1,3
Zinema	87,8	37,7	72,1	29,9	-57,1	-58,5
Ikuskizunak	52,2	28,6	62,5	23,9	-45,2	-61,8
Erakusketak	53,3	27,3	55,8	30,8	-48,8	-44,8
Liburutegiak	54,4	32,5	52,9	38,5	-40,3	-27,2

### Parte-hartze sortzailea

Parte-hartze hartzailean ez bezala (zeinak, ia ohitura guztietan, publikoa mugitzea baitakar), parte-hartze sortzailean mantentzea izan da jasoaldien arteko ibilbide nagusia.

6. grafikoa. Parte-hartze sortzailearen\* aldaketa-ibilbideak 6. jasoalditik 7. jasoaldira (%)



\* Parte-hartze sortzailearen kasuan, mantentzeak esan nahi du ez dela aldatu egindako jardueren kopurua; aldaketa ertainak esan nahi du aldaketa bat egin dela jarduera bakar batean, eta aldaketa nabarmenak, berriz, 2 jarduera edo gehiago aldatu direla.

Goranzko ibilbideak beheranzkoak baino zertxobait handiagoak dira (% 24,7 eta % 20,1, hurrenez hurren), nahiz eta ibilbideen muturretan (aldaketa nabarmenak) gorakadak beherakadak baino askoz gehiago izan.

2. eranskineko taulak erakusten duenez, 6. jasoaldian eta 7. jasoaldian pertsona bakoitzak egindako sormen-praktikak alderatuta, ikusten da **praktikak areagotu egin direla eta praktikatzaile gehiago dituztela:**

- Behera egin du batere jarduerarik egin ez duen pertsonen kopuruak (% 55,7tik % 52,1 era).
- Behera egin du jarduera bakarra egin duten pertsonen kopuruak, % 28,4tik % 24,2ra.
- Aldiz, bi jarduera edo gehiago egin dituztenen kopurua nabarmen handitu da, % 16tik % 23,7ra..

Sexuaren eta adinaren arabera (2.1 eta 2.2 eranskinetako taula), honako hau azpimarratu dezakegu:

- **Beherakada nabarmena izan da sormen-jarduerarik egiten ez duten gizonen kopuruan:** 6. jasoaldian % 60,8 izatetik, 7. jasoaldian % 51,5 izatera pasa da. Hau da, % 9 inguru dira praktikatzaile berriak.
- Emakumeen artean, berriz, **indartu egin da praktikatzaileen joera:** 6. jasoaldian, % 16,5ek egiten zituzten 2 jarduera edo gehiago; 7. jasoaldian, berriz, % 24,7k.
- **30 urtetik beherako artean, bi dinamikak antzematen dira:** alde batetik, jarduerarik egiten ez duten pertsonen kopurua nabarmen jaitsi da (6. jasoaldian % 54,4 izatetik 7. jasoaldian % 42,9 izatera pasa da); eta, bestetik, indartu egin da praktikatzaileen joera (2 jarduera edo gehiago egin dituztenak % 17,8 izan ziren 6. jasoaldian, eta 7. jasoaldian, berriz, % 29,9).
- 30 urtetik gorako artean, indartze-dinamika baino ez da antzematen, baina kopuruak ez dira horren adierazgarriak; eta 2 jarduera edo gehiago egiten dituztenen ehunekoa % 5 inguru igo da (% 14,4tik % 19,7ra).

Nolanahi ere, gogoan izan behar dugu panelaren testuinguruan jada detektatutako ezaugarri bat dela parte-hartze sortzailearen sendotasuna; modu horrek izan ditu aldaketa gutxien jasoaldien artean, eta hura izan da gehien mantendu dena. Pandemiaren aurrean ere eutsi egin dio, neurri handi batean, sendotasun horri. Beste ezaugarri bat parte hartzeko modu horrek eskatzen duen denborarekin lotuta dago. Inguruabar normaletan, denbora libre izatearen mende zegoen parte-hartze sortzailea; bada, pandemian zehar beste jarduera batzuk egiterik izan ez denez, baldintza egokiak sortu dira pertsona bakoitzak jarduera gehiago egin ahal izateko. Beraz, **denboraren faktoreak are garrantzi handiagoa hartu du parte hartzeko modu horretan.**

Hona hemen kontuan hartu beharreko beste gauza bat: aztertutako praktiketako asko, batik bat ohikoenak, eremu pribatuan eta bakarka egin daitezke. Praktika batean prestakuntza kolektiboa dagoenean ere (musika-eskolak, adibidez), errazagoa da jarduera horientzat kanal digitalen bidezko aukera bat topatzea. Hori ezinezkoa da beste praktika batzuetan, hala nola antzerkian edo abesbatza batean; dena den, horrelako jarduerak ez dira hain ohikoak herritarren artean (eta aztertutako laginean).

Berriz ere, interesgarria da ikustea zein izan diren jasoaldi bakoitzeko praktika ohikoenak, eta aztertzea zer portaera izan duten denboran zehar. Taulan ageri diren lehenengo 5 praktikak izan ziren ohikoenak aurreko jasoaldietan; azkenekoan, berriz, batzuek gora egin dute, eta taularen amaieran jarri dira. 4. eta 5. eranskinetan ikus daitezke taula horiek, sexua eta adina berezita.

4. taula Parte-hartze aktiboko jarduera ohikoenak 3. eta 7. jasoaldien artean, eta azken bi jasoaldien arteko aldearen ehunekoa (Ehuneko horrek esan nahi du jarduera hori egin dela azken 6 hilabeteetan)

	3. jasoaldia	4. jasoaldia	5. jasoaldia	6. jasoaldia	7. jasoaldia	6. eta 7. jasoaldien arteko aldearen ehunekoa
Musika-tresna bat jotzea	14	13,2	12,6	11,9	14,4	% +21,01
Idaztea	10,9	12,6	15,3	12,4	11,9	% -4,03
Dantza eta balleta	7,3	7,5	9,3	6,2	7,7	% +24,19
Argazkigintza (lantegiak, ikastaroak)	7,3	11,5	7,7	10,8	16,5	% +52,78
Pintura edo marrazketa	6,2	9,2	10,9	3,6	11,3	% +213,89
Beste arte plastiko batzuk	2,6	5,7	4,4	6,7	7,2	% +7,46
Bideoak egitea (lantegiak, ikastaroak)	4,1	3,4	3,3	5,2	12,4	% +138,46
Beste ikus-entzunezko batzuk (diseinu grafikoa, webguneak, etab.)	2,6	3,4	5,5	6,2	6,7	% +8,06


Top-5a osatzen zuten praktiken artean, argazkigintzak izan zuen igoerarik handiena (gorakada nabarmenena, 30 urtetik beherakoen artean eta gizonen artean), pinturarekin edo marrazketarekin batera (handitu egin zen adin guztietan eta bi sexuetan). Hain zuzen ere, jasoaldi honetan berreskuratu dira aurretik galdutako praktikatzaileak.

Musika-tresna bat jotzen dutenen kopuruak ere gora egin du nabarmen (gizonen artean soilik); idazketak eta dantzak, aldiz, joera gorabeheratsua izan dute hasieratik, nahiz eta dantzak pixka bat gora egin duen jasoaldi honetan, emakumeen artean hain zuzen.

Ehuneko garrantzitsuak izateagatik aintzat hartutako jarduera berriei dagokienez, **bideo-praktikak asko handitu dira**, eta gorakadak izan dira, baita ere, **bestelako arte plastikoetan** (bereziki gizonen eta 30 urtetik gorakoen artean) eta **beste ikus-entzunezko batzuetan**.

Azkenik, elkartegintzan jaitsiera bat izan da aurreko jasoaldiarekin alderatuta, orduan hazi egin baitzen; eta ehunekoa aurreko jasoaldietako batez bestekotik hurbil dago berriz (7. grafikoa).

7. grafikoa. **Elkarte batean edo gehiagotan izandako parte-hartzearen bilakaera (%)**




Elkarteek pandemian izandako esperientziari buruz hausnartzeko aukera ematen du datu horrek. Ez da hausturarik ikusten balio historikoei dagokienez, baina jaitsiera antzematen da Covid-a baino lehenagoko azken datuarekin alderatuta. Elkarrekin nolabaiteko bolumena galdu badute ere, **hibernazio-estrategia** baten ondorioz daude, batez ere, egoera horretan; alegia, beren jarduera normaltasun handiagorik garatu ahal izateko zain daude. Testuinguru horretan, nahiz eta norbait elkarte bateko kide izan, litekeena da jarduera gutxi egitea (edo bat ere ez). Pandemiak asoziazionismo kulturalen eragin negatiboa izan badu, elkarte horiek berriz lanean hastean antzemango litzateke.

### Parte-hartze digitala

Parte-hartze digitalak izan du bilakaerarik positiboena; mantendu egin da (% 43,3) eta goranzko ibilbideak ere kasuen % 34,3 izatera iritsi dira. Guztira, hamar pertsonatik bik baino ez dute digitalki parte hartzen orain pandemiaren aurretik baino gutxiago, eta hamarretik batean bakarrik da jaitsiera hori nabarmena.

8. grafikoa. **Parte-hartze digitalaren aldaketa-ibilbideak 6. jasoalditik 7. jasoaldira (%)**



Parte-hartze digitalak gorakada izan zuen aurreko jasoaldian, eta **pandemiarekin indartu egin da goranzko joera hori**. Berriz ere, aurreko jasoaldian batez bestekoaren azpiko parte-hartze digitala izan zuten pertsonen artean gertatu dira igoerak; eta beherakadak, berriz, aurreko jasoaldian batez bestekoaren gainetik zeudenen artean (1. eranskineko 3. taula). Horregatik, emaitzak aurreko jasaldiekin alderatuz gero, ikusiko dugu hazkundera eta mantentzeko joera handiak izan direla; **parte-hartze digitalaren maila igo egin da termino absolutuetan, nahiz eta jaitsierak egon**.

Modulu koiunturalean zehatzago aztertuko ditugu ohitura digitalak; hala ere, jada aurreratu ditzakegu antzemandako joera batzuk, jasoaldi bakoitzeko jardueri erreparatuta (5. taula), eta sexua eta adina kontuan izanda (6. eta 7. eranskinetako taula).

5. taula . Parte-hartze digitaleko jarduera ohikoenak 2. eta 7. jasoaldien artean, eta azken bi jasoaldien arteko aldearen ehunekoa (Ehuneko horrek esan nahi du jarduera hori gutxienez behin egin dela azken 6 hilabeteetan)

	2. jasoaldia	3. jasoaldia	4. jasoaldia	5. jasoaldia	6. jasoaldia	7. jasoaldia	6. eta 7. jasoaldien arteko aldearen ehunekoa
Filmak, telesailak edo bideoak ikustea	95,1	92,3	92,5	89,6	95,4	97,4	% +2,1
Musika entzun edo deskargatzea	62,5	69,4	62,1	66,5	81,3	77,4	% -4,8
Liburuak irakurri edo deskargatzea	39,1	40,4	38,5	37,7	41,8	40,7	% -2,63
Liburutegira joatea	22,5	23,3	25,9	24,6	25,3	20,9	% -17,3
Kontzertuak ikustea	14,8	16,7	22,5	20,6	31,2	42	% +34,6
Ikuskizunak ikustea	8,7	13,5	12,6	10,4	10,3	19,3	% +87,4
Erakusketak ikustea	3,3	3,6	2,9	2,2	2,1	4,1	% +95,2

**Praktika nagusietan mantendu egin da jarduera horiek egiten dituzten pertsonen kopurua, eta gutxien egiten direnetan, berriz, handitu egin da.** Internet bidez kontzertuak, ikuskizunak eta erakusketak ikusteaz ari gara. Ikuskizunei eta erakusketei dagokienez, ehunekoa ia bikoiztu egin da, eta kontzertuei dagokienez, hirukoiztu. Gogoan izan behar da ehuneko horiek ez dutela intentsitaterik adierazten; eta intentsitatean ere baliteke aldaketak egon izana. Alderdi hori hobeto ikusiko dugu **bloke koiunturala** aztertzeke atalean.

Liburutegietarako sarbide birtualetan bakarrik antzematen da beherakada esanguratsua, eta baliteke jaitsiera hori sarbide birtualaren eta presentzialaren konbinazioarekin lotuta egotea.

Sexuei erreparatuta, nabarmentzekoa da gizonen artean gorakada askoz ere esanguratsua izan dela ikuskizunetan; izan ere, 7. jasoaldian gizonen eta emakumeen ehunekoak antzekoak badira ere, gizonen parte-

hartzea askoz ere txikiagoa izan zen 6. jasoaldian. Erakusketetan dinamika bera antzematen da: hazkunde handia, abiapuntua oso apala zelako. Aitzitik, kontzertuek gorakada handiagoa izan dute emakumeen artean, kasu honetan abiapuntua baxuagoa zelako. Beraz, ehuneko handiak berdindu egin dira.


Adinari erreparatuta, 6. jasoaldiko abiapuntua musika entzutearen kasuan baino ez da aldatzen; izan ere, parte-hartzea askoz handiagoa da 30 urtetik beherakoen artean. Covid-19aren eragina kontzertuak ikustearen kasuan soilik nabaritzen da (joera hori askoz gehiago zabaldu da gazteen artean 30 urtetik gorakoen artean baino), eta erakusketetan ere bai; azken horretan parte-hartzea oso marjinala izan da, baina askoz ere bilakaera positiboagoa izan du zaharragoen artean.

Parte-hartze digitalean sakonduz, honako hauei buruzko datuak ere ematen ditu panelak:

- Ikus-entzunezkoetara sartzeko kanalak.
- Musika entzuteko euskarriak eta kanalak.
- Liburuak irakurtzeko kanalak.
- Ikuskizunak online ikusteko arrazoiak.

Panelak pandemiaren aurreko urteetako bilakaera digitala erakusten du, 2016tik abiatuta. Urte horietan **streaminga nagusitu da** deskargaren aurrean, eta jasoaldi honetan sarbideen % 96 era horretara egin dira (9. grafikoa). Covid-19ak jauzi txiki bat eragin du, eta ia inork ez du deskargara jo lagina osatzen duten pertsonen artean.


9. grafikoa. **Filmak, serieak, bideoak eta abar ikusteko kanalen bilakaera 2. jasoalditik 7. jasoaldira (%)**






Bestalde, 10. grafikoak erakusten duenez, nabarmen murriztu da zerbitzu horiengatik ordaintzen ez duten pertsonen ehunekoa. Izan ere, **geroz eta ohikoagoa da ordaintzea edo harpidetzea**, eta ez noizbehinka edo une jakin batzuetan bakarrik (plataformek eskaintzen duten katalogora etengabe sartzeko dinamikaren ondorioz).

10. grafikoa. **Filmak, serieak, bideoak eta abar ikusteko ordainketa- edo harpidetza-maiztasunaren bilakaera, 2. jasoalditik 7. jasoaldira (%)**




Musikari dagokionez, *streaminga* ere asko hazi da eta joera nagusi bihurtu da, bereziki doakoa denean (% 46,3), baina ordainpekoa denean ere bai (% 21,2). Ordainpeko deskargak oso marjinalak dira, eta gorabeherak izaten dituzte jasoaldi guztietan. Halaber, formatu fisikoa % 5 eta % 6 artean mantendu da, eta irratiak behera egin du; hala ere, azken jasoaldian % 16ra iritsi da (11. grafikoa).

11. grafikoa. **Musika entzuteko baliabidearen bilakaera 2. jasoalditik 7. jasoaldira (%)**




Musikaren arloan jarraituz, azpimarratu behar da **telefono mugikorra musika entzuteko gailu nagusi bihurtu dela** (% 53,4). Dena den, oraindik asko erabiltzen dira irratia edo irakurgailuak, bai etxean (% 11,4) eta bai autoan (% 20,2). Ordenagailua, berriz, gutxiago erabiltzen da musika entzuteko (% 9,8, 12. grafikoa)..

12. grafikoa. **Musika entzuteko euskarriaren bilakaera 2. jasoalditik 7. jasoaldira (%)**



Liburuari dagokionez (13. grafikoa), **paperezko formatua mantendu egin da**, eta haren bilakaera ez da ia aldaketarik izan aztertutako aldian. Liburuen deskarga % 20 pasatxora iritsi da, eta batez ere doan egin da. Irakurketa izan da jarduera hartzaileen artean gehien mantendu den jarduera; eta batez ere paperean egin da, datu horiek argi erakusten dutenez (parte-hartze digitala kalkulatzeko, deskargako formatuan egindako irakurketa soilik hartzen da kontuan).

13. grafikoa. **Irakurketaren bilakaera paperezko euskarrian edo euskarri digitalean 2. jasoalditik 7. jasoaldira (%)**



Azkenik, online ikuskizunei dagokienez, erabiltzaileek haietara jotzeko ematen dituzten arrazoiak konparatu eta arrazoi bakoitzak zer garrantzi duen ikus dezakegu (14. grafikoa). Interesgarria da konparazio hori egitea, azken jasoaldian erabiltzaile-kopurua handitu egin dela kontuan izanda.

Aurreko jasoaldietako batez bestekoarekin alderatuta, pandemia da "Beste batzuk" arrazoiaren gorakadaren zergati nagusia. Hala ere, item bakoitzak aurreko jasoaldietan zein oraingoan izan duen pisuari erreparatu behar zaio. Honako arrazoi hauek nahiko garrantzitsutzat jotzen dira:


- Etxetik irten gabe ikusi ahal izatea.
- Aspaldiko ikuskizun bat ikusi ahal izatea.
- Ikuskizunaren lekuaren urruntasun geografikoa.
- Doakotasuna.

Pandemia baino lehenagoko jasoaldietan, garrantzi handiko arrazoietako bat **joateko astirik ez izatea** zen, **urruntasun geografikoarekin** batera.

Bestalde, jasoaldi haietan eta azkenekoan garrantzirik eman ez zaien arrazoiei ere erreparatu behar zaie:

- Ikuskizuna bakarka ikusi ahal izatea.
- Beste ikusle batzuekin interakzioan aritu ahal izatea.
- Ikuskizunari buruzko informazio gehiago jaso ahal izatea ez da arrazoi garrantzitsua izan Covid-19aren garaian, baina bai lehenago.
- Argitaratu gabeko materiala eskuratu ahal izateari ere ez zaio garrantzirik ematen..

14. grafikoa. **Zuzeneko ikuskizunak online ikusteko arrazoen konparazioa Covid-aren aurreko jasoaldien eta 7. jasoaldiaren artean**



## Ondorioa

Covid-19ak oso eragin negatiboa izan du parte-hartze kultural hartzailean, eta neurri batean lagungarria izan da jarduera sortzaile eta digitalentzat.

Zehazki, sorkuntza-jarduera oro har gehiago hazi da gizonen artean (maila apalago batetik abiatzen zen) emakumeen artean baino; beraz, parekatu samar daude egungo jasoaldian. Hala eta guztiz ere, gizonak eta emakumeak interes desberdinak dituzte. Jarduera digitalaren kasuan, konfinamenduak interes handiagoa piztu du gizonengan; hain zuzen ere, jarduera jakin batzuetan, emakumeena baino maila baxuago batetik abiatzen ziren (ikus erakusketak eta ikuskizunak). Adinaren arabera ere aldeak nabaritzen dira; desberdintasun horiek bi adin-taldeetan interesekin daude lotuta, eta ez hainbeste beren gaitasun digital potentzialekin.

Sexuaren eta adinaren araberako espezifikotasunak alde batera utzita, Covid-19aren ondoriozko emaitza horiek behin betiko frogatzen dute parte-hartze kulturalaren ikusmolde globalak duen balioa, modu guztiak kontuan izanda. Izan ere, Covid-19ak ez du eragin bera izan parte-hartze kulturalako modu guztietan. Beraz, emaitzek ideia hau azpimarratzen dute: modu horietako bakoitza funtsean desberdina dela eta berezko ezaugarriak dituela, eta modu guztiak hartu behar ditugula kontuan parte-hartze kulturalari buruz hausnartzean.

Gogoan izan behar dugu, halaber, konfinamendu zorrotzeko aldian ez zela inkestarik egin. Nolanahi ere, jasoaldi honek inpaktu handi bat islatzen du. Horrek agerian uzten du Covid-19aren ondorioak denboran luzatzen ari direla, eta egoera horrek aldaketa batzuk gauzatzeko lagun dezake.

Ez da arrazoizkoa pentsatzea Covid-19aren garaiko dinamikei eutsiko zaiela, baina ez da zentzuzkoa, ezta ere, pentsatzea aldaketarik ez dela izango. Etor litezkeen aldaketen artean, sormenezko jarduerak eta jarduera digitalek piztutako interesa dago.

Sorkuntza-jarduerarekiko interes berri horrek hau gogorarazten digu: praktika artistiko amateurrek ere garrantzi handia dutela parte-hartze kulturalako modu gisa. Izan ere, aurreko jasoaldietan ikusi dugunez, korrelazio positiboa dago modu sortzailean gehiago parte hartzearen eta modu hartzailean gehiago parte hartzearen artean; biek elkar indartzen dute dinamika horretan.

Jarduera digitalari dagokionez, nabarmentzekoa da gora egin dutela lehenago oso ohikoak ez diren praktika batzuek: zuzeneko ikuskizunak, kontzertuek eta erakusketek, hain zuzen (haien bidez konpentsatu da jarduerak aurrez aurre egiteko ezintasuna). Konpentsazio-efektua izan arren, praktika berri horiek aukera berriak ekarri dituzte, eta kasu batzuetan mantendu egin daitezke, joera berriak sorraraziz. Ezin dira ordezkotzat hartu, baina berrikuntza ekar dezakete kultura-zerbitzu digitalen edo hibridoaren eremura. Hurrengo atalean sakonago aztertuko ditugu kultura-ohitura digitalen eraldaketak.

Gainera, eduki kulturalak eskuratzeko moduei dagokienez, bilakaera-datuek erakusten dute Covid-19ak indartu egin dituela lehendik zetozen joera batzuk, hala nola streamingaren nagusitasuna eta sarbidearen kultura (askotan ordainpekoa) jabetzaren aldean. Edonola ere, liburuaren esparruan paperak nagusi izaten jarraitzen du, baita Covid-19aren agerpenaren ondoren ere.

## 3.2. Bloke koiunturala: Covid-aren osteko joerak kultura-ohitura digitaletan

### Xedea

- Covid-19ak kultura-ohitura digitalen praktikan izan duen eragina ikustea.
- Etorkizuneko joerak aztertzea, inkestatutako pertsonen iritzia kontuan izanda, eta sexuaren eta adin-taldearen arabera (30 urtetik beherakoak eta 30 urtetik gorakoak).

Gauza garrantzitsu bat gogoratu behar da: datuak irakurtzeko orduan, kontuan hartu behar da panelak, bere helburu nagusiak direla-eta, ez duela erabiltzen lagin adierazgarririk edo ausazkorik. Horregatik, emaitzak ezin dira modu demoskopikoan irakurri; alegia, ezin dira estrapolatu biztanleria guztira. Izan ere, kultura-kontsumoaren gutxieneko atalase bat gainditzen duten pertsonen soilik osatuta dago lagina.

Datuak ez dira zorrotz eta era absolutuan interpretatu behar; joeratzat hartu behar dira, eta, betiere, lagina osatzen duen profilaren barruan.

### Zer neurtzen da?

Galdera-eremuak honako praktika hauekin daude lotuta:

- Internet bidez kontzertuak, antzezpenak edo bestelako zuzeneko obrak ikustea.
- Ordainpeko harpidetzen bidez eduki kulturalako plataformetan sartzea (musika, ikus-entzunezkoak eta liburuak bereizten dira).
- Sare sozialen bidez hitzaldietan, tutorialetan edo antzeko ikaskuntza-jardueretan parte hartzea.
- Erakusketa, museo, ondare-gune eta abarretara bisita birtualak egitea.
- Euskarri fisikoko produktu kulturalen erosketa digitalak egitea.
- Sare sozialetan sorkuntza propioak trukatzeta, edozein formatutan (*stories, directs, posts...*).
- Artista profesionalen eduki sortzailea sare sozialetan trukatzeta.

Lehenik eta behin, aipatutako praktikekiko jokabide hauek izan dituzten pertsonen kopurua zenbatzen da:

- Covid-aren aurreko maila beretan mantendu dute praktika (oso baxuak izan daitezke mailok; ez da bereizketarik egiten).
- Konfinamendu-aldian hasi dira praktika egiten.
- Praktikaren intentsitatea handitu dute.
- Praktika egiteari utzi diote.

Bigarrenik, bere ezaugarriak edonolakoak izanda ere, elkarrizketatuari galdetzen zaio ea, bere iritziz, etorkizunean praktika horiek ohikoak izango diren gizartean. Erantzun hauen artean aukera dezake:

- Gizartean ohiko praktika bihurtu da dagoeneko.
- Etorkizunean ez da ohikoa izango; konfinamenduak eragindako salbuespen bat izan da.
- Etorkizunean ohiko praktika izango da.

## Nola neurtzen da?

Bi kasuetan, aukera guztiekiko portzentajeak kalkulatu egiten da neurketa.

## Emaitzak eta eztabaida

15. eta 16. grafikoek pandemian egindako praktikak eta gizarte-joerei buruzko iritzia erakusten dituzte, hurrenez hurren.

Pandemian gehien indartu den praktika hau izan da: **ordainpeko harpidetzen bidez eduki kultureleko plataformetan sartzea**, bereziki ikus-entzunezkoetan. Musika entzutea izan da bigarren praktikarik ohikoena (maila askoz apalagoan, aurrekoarekin alderatuta), eta hirugarrena liburuak irakurtzea (praktika hori testigantzakoa baino ez da).


6. taula. Plataformetarako ordainpeko harpidetzak, motaren arabera	
	Erabilera zabaltzea edo erabilera berria
Ikus-entzunezkoak	%37,3
Musika	%13,7
Liburuak	%2,9

Inkestan parte hartu duten pertsona gehienek iritziak, praktika hori ohikoa da jada (% 53,9), edo hala izango da etorkizunean (% 29,4). Izan ere, % 6,4 baino ez da praktika horren erabiltzaile berria, eta % 10,8k soilik uste du konfinamenduak eragindako ezohiko dinamika bat izan dela.

Beste praktika bat ere nabarmentzen da izan duen gorakadagatik eta erabiltzaile berrien kopuru handiagatik: **sare sozialen bidez hitzaldietan, tutorialetan edo antzeko ikaskuntza-jardueretan parte hartzea**. Praktika hori izango da etorkizuneko joera nagusietako bat. Inkestatuen % 38,7k uste du ohikoa zela jada praktika hori, eta % 45,6ri iruditzen zaio ohiko bihurtuko dela. Berriz ere, % 9,3k baino ez du uste ohiz kanpoko zerbait izan dela.



15. grafikoa. **Pandemian egindako praktika digitalak (%)**



16. grafikoa. **Gizarteko ohitura kulturalen joerei buruzko iritzia** (%)



**Internet bidez kontzertuak, antzezenak edo bestelako zuzeneko obrak ikusteak** % 18,6ko gorakada izan du erabiltzaile berrietan, eta antzeko ehuneko batek (% 17,6) sarriago egin du jarduera hori. Inkestatu gehien iritzi (% 49,5), ohiko praktika bihurtuko da; alabaina, inkestatuen kopuru garrantzitsu batek (% 30,4) uste du ohiz kanpoko praktika bat izan dela; alegia, konfinamenduak eragindako zerbait. Kasu honetan, beraz, adostasun gutxiago dago, pertsona batzuek ez baitute jotzen aukera garrantzitsutzat.

Antzeko zerbait antzematen da (baina are alde handiagoarekin) **erakusketetara, museoetara, ondare-guneetara eta abarretara bisita birtualak** egiteari dagokionez. Kasu honetan, oso pertsona gutxi zuten lehendik ohitura hori, eta erabiltzaile berriak % 6,4 dira. Ehuneko txikia izan arren, esanguratsua da zenbaki absolutuetan, abiapuntu praktikatzaile-tasa oso apala baitzen. Inkestatuen % 41,2k uste du etorkizunean ohiko praktika izango dela; aldiz, % 36,8ren ustez konfinamenduak eragindako salbuespen bat izan da.


Sare sozialak **eduki propioak** nahiz **artista profesionalenak trukatzeko** erabiltzeari dagokionez, inkestatuek uste dute praktika nagusi bihurtu dela jada. Bi kasuetan erabiltzaile berri gutxi daude (% 3,5 eta % 4 artean), eta aldaketa nagusia izan da erabilera indartu egin dela, batez ere eduki propioak trukatzeko (% 21,2; profesionalen edukiak partekatzeari dagokionez, % 14,7). Hala, eduki propioak partekatzea egungo joera nagusitzat hartzen da (% 57,8), profesionalen edukiak partekatzea baino gehiago (% 47,1). Aitzitik, ohiko praktika bihurtuko dela uste duten pertsona-kopuruari erreparatuta, ehuneko hori handiagoa da bigarren kasuan; hortaz, litekeena da biek garrantzi bera hartzea.

Euskarri fisikoko **produktu kulturalen erosketak digitalak** ohiko praktikatzat hartzen da, oro har (% 56,9), eta batzuek uste dute are ohikoagoa izango dela etorkizunean (% 27). Kasu honetan, % 5,9ko gorakada izan da erabiltzaile berrietan, eta inkestatuen % 16,8k Covid-19a iritsi aurretik baino sarriago egin dute jarduera hori.

Parte-hartze digitala, bloke honetako jarduerak kontuan hartuta, **eremu berriagoa izan da emakumeentzat** gizonentzat baino. Emakumeak dira, gehienbat, praktika horiek lehen aldiz egin dituztenak, eta Covid-19a iritsi aurretik baino sarriago egin dituzte (17. grafikoa). Aldiz, adinari erreparatuta (18. grafikoa), ehuneko globalak antzekoagoak dira. Dena den, zenbait praktika **gehiago areagotu dira 30 urtetik gorakoen artean adin horretatik beherakoen artean baino**: eduki-plataformak erabiltzea, ikaskuntza informaleko jardueretan parte hartzea, erosketak digitalak egitea eta zuzeneko antzezenak ikustea.

17. grafikoa. **Praktika bakoitza lehen aldiz edo lehen baino gehiago egin duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera**


(emakumeak, kolore ilunak eta barra zabala)



18. grafikoa. **Praktika bakoitza lehen aldiz edo lehen baino gehiago egin duten pertsonen ehunekoa, adinaren arabera**

(30 urtetik beherakoak, kolore ilunak eta barra zabala)

■ [30 urtetik beherakoak] Lehen aldiz      ■ [30 urtetik beherakoak] Lehen baino gehiago  
■ [30 urtetik gorakoak] Lehen aldiz      ■ [30 urtetik gorakoak] Lehen baino gehiago



## Ondorioa

Irakurketa globala eginez gero, esan genezake garrantzi handia hartu dutela bi praktika hauek: eduki kulturaletara sartzeko ordainpeko plataformek eta ikaskuntza informaleko jarduerak.

Garatzeko potentzial handiena duten praktikei dagokienez, askotariko iritziak daude aztertutako publikoan (alegia, kultura-jardueraren gutxieneko atalase bat gainditzen duten pertsonen osatutako laginean). Beraz, ez da erraza aurreikuspenak egitea ohitura horiei buruz. Dena dela, bi praktika nabarmendu behar ditugu; beren ezaugarriengatik ingurune digitalean arazo handienak izan ditzaketenak, hain zuzen: zuzeneko antzezpenak eta museoetara, erakusketetara eta ondare-guneetara egindako bisitak. Iritzi-desberdintasunak gorabehera, inkestatuen ehuneko handi batek uste du ohiko bihurtuko direla praktika horiek, eta horrek erakusten du publikoaren zati bat prest dagoela aipatutako jarduerak egiteko.

Gaur egun, nabarmen zabaltzen ari da sare sozialen bidez eduki kulturalak trukatzeko joera, erosketa digitalekin eta eduki kultureko plataformekin batera.

Joera horien eragina bereziki handia izan da aurretik eremu digitalean interes gutxien zeukaten kolektiboetan, hala nola emakumeengan eta adineko pertsonengan.

Hortaz, parte-hartze kulturalari ikuspegi zabal batetik heldu behar zaio, eta kontsumo-jarduerak ez ezik, trukerako eta adierazpenerako jarduerak ere aztertu behar dira. Hori behar-beharrezkoa da aukera digitalak ulertzeko eta haien bidez kultura-ohiturak nola gara daitezkeen ikusteko: ez da soilik kontsumitzeko bitarteko bat, baizik eta adierazpenerako bitarteko bat; eta informatzeko bidea izateaz gain, ikasteko bidea ere bada.

### 3.3. Aldaketaren pertzepzio subjektiboa: faktore soziologikoak bigarren mailan

#### Xedea

- Aldaketaren pertzepzio subjektiboa aztertzea.
- Aldaketaren arrazoi subjektiboak aztertzea.
- Emaizta subjektiboak eta emaitza objektiboak erkatzea.

Gauza garrantzitsu bat gogoratu behar da: datuak irakurtzeko orduan, kontuan hartu behar da panelak, bere helburu nagusiak direla-eta, ez duela erabiltzen lagin adierazgarririk edo ausazkorik. Horregatik, emaitzak ezin dira modu demoskopikoan irakurri; alegia, ezin dira estrapolatu biztanleria guztira. Izan ere, kultura-kontsumoaren gutxieneko atalase bat gainditzen duten pertsonen soilik osatuta dago lagina.

Datuak ez dira zorrotz eta era absolutuan interpretatu behar; joeratzat hartu behar dira, eta, betiere, lagina osatzen duen profilarren barruan.

#### Zer neurtzen da?

Azaldutako xedeetarako, ezinbestekoa da neurri hauek kontuan hartzea:

- **Ibilbide subjektiboa:** norbanako bakoitzak bere aldaketa-ibilbidearen gainean duen pertzepzioa —hots, igo, mantendu edo jaitsi egin den—. Modu horretan, aldaketaren inguruko pertzepzio orokor bat neurtzen da, parte-hartze hartzailearen, sortzailearen eta digitalaren artean bereizketarik egin gabe. Pertzepzio subjektibo bat da, norbanako bakoitzak hautematen duena.
- **Arrazoi subjektiboak:** parte-hartze maila orokorra igo, mantendu edo jaitsi izana justifikatzeko norbanakoek emandako arrazoiak.
- **Ibilbide objektiboa:** gainera, aurrez parte-hartze hartzailean, sortzailean eta digitalean ibilbideen deskribapenerako erabilitako neurriak berriro aztertzen dira, pertzepzio subjektiboarekin erkatze aldera. Aurreko atalean "ibilbideak" aipatu direnean ez da erabili "objektiboak" etiketa (ibilbideok datu-konbinazioaren eta kalkuluaren bitartez definitzen direlako, ez norberaren pertzepzio zuzenaren bitartez), baina, kasu honetan, erantsi egin da etiketa, eta, horri esker, bi ikuskerak bereiz daitezke.

Datuak bi jasoaldika ematen dira: 2. jasoaldiko datuen artean sartu dira soilik 1. jasoaldian ere parte hartu zuten pertsonenak, 3. jasoaldiko datuen artean 2.ean ere parte hartu zutenenak, eta abar. Jasoaldi guztietan ordezkapen-tasa bat dago: batzuek ikerketa uzten dute, eta beste batzuk sartzen dira. Horrela, informazio-galera optimizatzea lortzen da; bestela, jasoaldi guzti-guztietan parte hartu duten pertsonen datuak bakarrik hartuko balira, informazio-galera oso handia izango litzateke.

#### Nola neurtzen da?

Ibilbide objektiboa aurreko atalean bezalaxe neurtzen da (indizeak kalkulatu, jasoaldien arteko aldeak ikusi eta igoera, mantentzea eta jaitsiera kategorietan birkodetzea egiteko prozesuaren ondorioz).


Ibilbide subjektiboa aldagai jakin bakarra erabiliz neurtzen da, zeinaren arabera inkesta betetzen zutenek jasoaldien artean zuten parte-hartze mailaren bilakaera balioesten baitzuten. Hala, beren ustez, parte-hartze maila igo, jaitsi edo mantendu egin ote zuten adierazten zuten.

Arrazoi subjektiboak arrazoi-zerrenda batetik ateratako bi galderarekin dute zerikusia. Lehenengoan, beren ustez, eragina duten arrazoi guztiak hautatzen dituzte —bat baino gehiago hauta daiteke—. Bigarrenengan, beren ustez, arrazoi nagusiak izan direnak hautatzen dituzte.

## Emaizak eta eztabaida

Pertzepzio subjektiboak beheranzko joera argia islatzen du.

19. grafikoa. **Jasoaldien arteko aldaketa-ibilbide subjektiboak (norberak hautemanak).**  
**Laburpena (%)**



\* Oraingo honetan, ez dira kontuan hartu 3. jasoalditik ateratako kasuak, irizpide bateratuari eusteko.

Panelaren testuinguruan, maiz ikusten da pertzepzio subjektiboa bat datorrela parte-hartze hartzaillearen datu objektiboekin. Hau da, inkestatutako pertsonak jarduera hartzailleekin identifikatzen dute parte-hartze kulturala. Hala, **jarduera sortzaile eta digitaletan gorakadak antzeman diren arren, pertzepzio subjektiboa hertsiki lotuta dago norbanakoak parte-hartze hartzailerako izan dituen aukerekin.**

Aurreko jasoaldietan elkarrizketatuek emandako arrazoiek erakusten zuten patroi egonkorra hautsi egin da oraingoan (ehunekoen batura % 100 baino gehiago da, banako bakoitzak arrazoi bat baino gehiago hauta dezakeelako):




7. taula. Parte-hartze kulturalaren bilakaeraren arrazoi subjektiboak. 3-7 jasoaldia					
Arrazoa	4 Jasoaldia	5 Jasoaldia	6 Jasoaldia	7 Jasoaldia	6-7 aldearen
Daukadan astia	% 81,7	% 76	% 80	36,4	<b>% -54,5</b>
Zenbait erantzukizun pertsonal (familia barneko zaintza, ikasketak etab.)	% 55	% 60,1	% 62,6	% 43,3	<b>% -30,8</b>
Denbora librean ditudan beste interesak (lagunak, beste zenbait zaletasun etab.)	% 72,3	% 59	% 66,3	% 35,8	<b>% -46</b>
Parte-hartzea partekatze lagunak	% 57,9	% 51,4	% 51,1	% 25,1	<b>% -50,9</b>
Kultura-eskaintzarekiko dudan interesa	% 58,9	% 45,9	% 50	% 24,1	<b>% -51,8</b>
Kultura-jardueretik asebetetzea	% 50,5	% 43,7	% 36,8	% 12,8	<b>% -65,2</b>
Gomendioak (lagunak, prentsa, Internet etab.)	% 48	% 43,2	% 41,1	% 4,6	<b>% -88,8</b>
Nire inguruan dagoen kultura-eskaintzaren eskuragarritasuna	% 50	% 42,6	% 50,5	% 55,6	<b>% +10,1</b>
Eskuragarri ditudan kultura-jardueri buruzko informazioa	% 46,5	% 38,8	% 42,1	% 24,6	<b>% -41,6</b>
Jardueren prezioa	% 44,6	% 38,3	% 41,6	% 16,6	<b>% -60,1</b>
Abonuak, deskontuak, kultura-txartelak etab.	% 22,8	% 19,1	% 20,5	% 11,8	<b>% -42,4</b>
Gauza bera Internetez egiteko aukera	% 21,8	% 14,2	% 11,1	% 15,5	<b>% +39,6</b>
Beste batzuk	% 3,5	% 2,7	% 4,2	% 63,1	<b>% +1402,4</b>

“Beste batzuk” arrazoiak garrantzi handia hartu du, marjinala izatetik gehien aipatu den arrazoa izatera pasa baita. Kanpoko fenomeno gisa pandemiak parte-hartze kulturalan izan duen eragina islatzen du horrek. Ildo beretik, arrazoi gehienetan **beherakada orokorra izan da, bi faktore salbuetsita:**

- **Elkarrizketatutako pertsonaren inguruan dagoen kultura-eskaintzaren eskuragarritasuna.**
- **Gauza bera Internetez egiteko aukera.**

Desberdintasun txiki batzuk antzematen dira aldaketa-ibilbide subjektibo bakoitzaren arrazoi nagusia alderatuz gero (20. grafikoa). Hala, pandemiaren existentzia barne hartzen duen “Beste batzuk” arrazoa aipatzen da jaitzieren kausa gisa. Mantentzeetan eta, bereziki, igoeretan oso kasu gutxi badira ere aztertze modukoak, hau azpimarratu behar dugu: mantentze-kasuetan, inguruko kultura-eskaintzaren eskuragarritasuna dela arrazoi nagusia, eta, aldiz, igoera-kasuetan, denbora libre gehiago izatea.

20. grafikoa. **Inkesta bete dutenek adierazten dituzten arrazoi nagusiak beren aldaketa-ibilbide subjektiboaren arabera (%)**



## Ondorioa

Inkestari erantzun dioten pertsonen emandako arrazoi azterketak agerian uzten du Covid-19ak eragin handia izan duela parte-hartze kulturalan, normalean aztertu ohi den edozein faktore soziologikoren oso gainetik.

Izan ere, mantentze-ibilbide kasu bakanetan, inkestatuek beren inguruko kultura-eskaintzaren eskuragarritasuna aipatu dute joera hori azaltzeko, eta aukera hori bera da jaitsiera justifikatzeko arrazoi nagusietako bat. Pandemiak balioa eman die baldintza normaletan oharkabeen pasatu ohi diren faktore batzuei; agerikoak izateagatik ziurtzat jotzen diren faktoreei, hain zuzen. Era berean, Interneten erabilera agertu da praktika jakin batzuei eusteko estrategia gisa.

Osasun-arrazoiengatik ezarritako debekuek eta murrizketek ia erabat ezabatu dute pertsonen jardura hartzailen inguruan erabakiak hartzeko ahalmena. Egoera hori dela-eta, ezin dira ohiko faktore sozialak kontuan hartu parte-hartze kulturalaren bilakaera azaltzeko; eta are gutxiago aztertutako laginaren izaera aintzat hartuta, parte-hartze kulturala nabarmen lehenesten duten pertsonen osatuta baitago (berez, baldintza normaletan, zaletasun hori determinatzaile objektiboen gainetik jartzen da —prezioaren edo denbora librearen izatearen gainetik, esaterako—).

Parte-hartze kulturalaren jarraipena egiteko tresna izanik, panelak, oraingo honetan, begirada bereziki erabilgarria eta baliotsua ematen digu. Hain zuzen ere, Covid-19aren inpaktua aztertzen du pertsonen ikuspegitik, eta ez sektorearen ikuspegitik.

Inpaktu hori zer neurritan eta nola gertatzen ari den ikus dezakegu:

- **Parte-hartze hartzailea** izan da denetan kaltetuena, eta oso era nabarmenean gainera. Pandemia eta harekin lotutako osasun-neurriak dira bilakaera horren arrazoi nagusia. Testuinguru horretan, normalean aintzat hartzen diren baldintzatzaile objektiboek zentzu guztia galtzen dute: murrizketak hain handiak izan dira, ezen jendeak ez baitu ia aukerarik izan erabakiak hartzeko eta gauzak egiteko, edozein izanda ere haien posizio sozioekonomikoa eta beren bizi-zikloetan gertatutako aldaketak.

Horiek horrela, inguruko kultura-eskaintzaren eskuragarritasunari lotutako arrazoiak funtsezkoak dira.

Aztertutako gizonen kasuan inpaktua handiagoa izan da, maila apalago batetik abiatzen zirelako (emakumeek baino gutxiago parte hartzen dute jarduera hartzaileetan). Parte-hartze baxu hori interes desberdinen isla da, eta gauza bera gertatzen da adinarekin. Hala eta guztiz ere, 30 urtetik gorakoan artean parte-hartzea gehiago mantentzen da.

- Aldiz, **praktika artistiko amateurrek** interes handiagoa piztu dute eta pisua hartu dute. Pandemiagatik etxean denbora asko pasa dugu eta denbora libre gehiago izan dugu; eta beste gauza batzuk egitea ezinezkoa zenez, jende askok jarduera sortzaileak egin ditu. Horrelako ohiturarik ez zeukaten pertsona batzuek ere ekin diote jarduera berriren bati (gizonak dira gehienak). Beraz, pantailei eta jarduera digitalei ez ezik, horrelako praktikei ere mesede egin die Covid-19ak.
- **Kultura-ohitura digitalei** dagokienez, esan behar da lehendik garrantzia hartzen ari zirela, eta orain are gehiago indartu direla. Jende gehiago hasi da jarduera digitalak egiten, eta, hortaz, etorkizuna markatuko duten joera berriak sortu dira.

Joera berri horietan, aurretik ingurune digitala gutxien erabiltzen zuten kolektiboak bihurtu dira protagonista: emakumeak eta 30 urtetik gorakoak. Hain zuzen ere, orain arte, gizonak eta 30 urtetik beherakoek erabiltzen zuten gehienbat ingurune digitala.

Hurrengo jasoaldiak funtsezkoak izango dira, normaltasunera itzultzearekin batera joeren bilakaera nolakoa izan den ikusi ahal izango baitugu: nola suspertu den jarduera hartzailea eta nola orekatu diren parte-hartze mota guztiak, eta zer izan den Covid-19ak eragindako salbuespen bat eta zer ez.

Nolanahi ere, azterlan honek joera horien ezaugarri batzuk aurreratu ditu erabiltzaileen lagin batetik abiatuta, eta kultura-ohitura digitalak oinarritzat hartuta. Pertsona horiek informazio baliotsua ematen dute, jakinarazten digutelako zer jarduera eginez sentitzen diren eroso eta pozik. Praktika zehatz horiek, hortaz, zabaldu egin litezke etorkizunean:

- **Internet ikaskuntza informalerako bitarteko gisa;** praktika hedatuenetako bat da, baina ez da beste batzuk bezainbeste kontuan hartzen Interneten erabilera kulturalaz ari garenean.
- Alde horretatik, zalantzarik gabe, **eduki kultureko plataformetarako** sarbidea praktika oso garrantzitsua eta aski ezaguna da, Interneten erabilera kulturalari dagokionez.
- Eraldaketa digitalari aurre egiteko arazo gehien duten jarduerari dagokienez (**zuzeneko antzezenak eta museoetara, erakusketetara eta ondare-guneetara egindako bisitak**), desadostasunak daude inkestaturen artean, eta desadostasun horiek aukeratzat har daitezke. Izan ere, pertsona batzuen iritziz, joera hori mantendu egingo da Covid-19aren ondoren ere, eta beste batzuen iritziz ez; dena den, horrelako praktikak egin dituzten pertsonen ehuneko esanguratsu batek (gehiengoa izan ez arren) uste du eutsi egingo zaiola joerari.
- Azkenik, kontuan hartu behar da jada ohitura oso zabalduak bihurtu direla **erosketa digitalak** eta kultura-truke eta -adierazpenerako **sare sozialak erabiltzea**.

## 1. ERANSKINA. TAULA OSAGARRIAK

1. eranskineko taula. **Abiapuntuko parte-hartze hartzailearen batezbestekoa (6. jasoaldian), aldaketa-ibilbidearen arabera**

	Batezbestekoa
Jaitsiera handia	0,3251
Jaitsiera ertaina	0,2089
Mantentzea	0,1491
Igoera ertaina	0,2419
Igoera handia	-
<b>Guztira</b>	<b>0,2728</b>

2. eranskineko taula. **6. eta 7. jasoaldietan egindako jarduera artistiko amateur kopuruaren konparazioa**

	6. jasoaldiko ehunekoak	7. jasoaldiko ehunekoak
Jarduerarik ez	55,7	52,1
1 jarduera	28,4	24,2
2 jarduera	8,2	10,3
3 jarduera	3,1	6,7
4 jarduera	3,1	4,6
5 jarduera edo gehiago	1,5	2

2.1. eranskineko taula. **6. eta 7. jasoaldietan egindako jarduera artistiko amateur kopuruaren konparazioa, sexuaren arabera**

	Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	6. jasoaldiko ehunekoak	7. jasoaldiko ehunekoak	6. jasoaldiko ehunekoak	7. jasoaldiko ehunekoak
Jarduerarik ez	51,5	52,6	60,8	51,5
1 jarduera	32,0	22,7	23,7	25,8
2 jarduera	8,2	11,3	8,2	9,3
3 jarduera	3,1	6,2	4,1	7,2
4 jarduera	3,1	3,1	2,1	6,2
5 jarduera edo gehiago	2,1	4,1	1,0	-

2.2. eranskineko taula. **6. eta 7. jasoaldietan egindako jarduera artistiko amateur kopuruaren konparazioa, adinaren arabera**

	30 urtetik beherakoak		30 urtetik gorakoak	
	6. jasoaldiko ehunekoak	7. jasoaldiko ehunekoak	6. jasoaldiko ehunekoak	7. jasoaldiko ehunekoak
Jarduerarik ez	54,4	42,9	57,7	58,1
1 jarduera	27,8	27,3	27,9	22,2
2 jarduera	5,6	16,9	10,6	6,0
3 jarduera	4,4	5,2	2,9	7,7
4 jarduera	5,6	6,5	1,0	3,4
5 jarduera edo gehiago	2,2	1,3	-	0,9

3. eranskineko taula. **Abiapuntuko parte-hartze digitalaren batezbestekoa (6. jasoaldian), aldaketa-ibilbidearen arabera**

	Batezbestekoa
Jaitsiera handia	0,5250
Jaitsiera ertaina	0,4155
Mantentzea	0,3685
Igoera ertaina	0,3636
Igoera handia	0,2799
<b>Guztira</b>	<b>0,3689</b>

4. eranskineko taula. **Parte-hartze aktiboko jarduerarik ohikoenak 6. eta 7. jasoaldietan, sexuaren arabera (Ehuneko horrek adierazten du jarduera hori gutxienez behin egin dela azken 6 hilabeteetan)**

	Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	6. jasoaldiko ehunekoak	7. jasoaldiko ehunekoak	6. jasoaldiko ehunekoak	7. jasoaldiko ehunekoak
Musika-tresna bat jotzea	9,3	8,2	14,4	20,6
Idaztea	13,4	11,3	11,3	12,4
Dantza eta balleta	9,3	12,4	3,1	3,1
Argazkigintza (lantegiak, ikastaroak)	10,3	14,4	11,3	18,6
Pintura edo marrazketa	5,2	13,4	2,1	9,3
Bestelako arte plastikoak	11,3	10,3	2,1	4,1
Bideoak egitea (lantegiak, ikastaroak)	6,2	15,5	4,1	9,3
Beste ikus-entzunezko batzuk (diseinu grafikoa, webguneak, etab.)	3,1	4,1	9,3	9,3



5. eranskineko taula. **Parte-hartze aktiboko jarduerarik ohikoenak 6. eta 7. jasoaldietan, adinaren arabera (Ehuneko horrek adierazten du jarduera hori gutxienez behin egin dela azken 6 hilabeteetan)**

	30 urtetik beherakoak		30 urtetik gorakoak	
	6. jasoaldiko ehunekoak	7. jasoaldiko ehunekoak	6. jasoaldiko ehunekoak	7. jasoaldiko ehunekoak
Musika-tresna bat jotzea	16,7	19,5	7,7	11,1
Idaztea	11,1	11,7	13,5	12
Dantza eta balleta	7,8	10,4	4,8	6
Argazkigintza (lantegiak, ikastaroak)	12,2	20,8	9,6	13,7
Pintura edo marrazketa	6,7	15,6	1	8,5
Bestelako arte plastikoak	7,8	5,2	5,8	8,5
Bideoak egitea (lantegiak, ikastaroak)	6,7	11,7	3,8	12,8
Beste ikus-entzunezko batzuk (diseinu grafikoa, webguneak, etab.)	10	9,1	2,9	5,1

6. eranskineko taula. **Parte-hartze digitaleko jarduerarik ohikoenak 6. eta 7. jasoaldietan, sexuaren arabera (Ehuneko horrek adierazten du jarduera hori gutxienez behin egin dela azken 6 hilabeteetan)**

	Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	6. jasoaldiko ehunekoak	7. jasoaldiko ehunekoak	6. jasoaldiko ehunekoak	7. jasoaldiko ehunekoak
Filmak, telesailak edo bideoak ikustea	96,9	95,9	93,8	99
Musika entzun edo deskargatzea	78,9	73,2	83,5	81,7
Liburuak irakurri edo deskargatzea	36,1	34	52,6	47,4
Liburutegira joatea	30,9	26,3	19,6	15,6
Kontzertuak ikustea	28,7	42,3	33,7	41,7
Ikuskizunak ikustea	14,4	18,8	6,2	19,8
Erakusketak ikustea	3,1	4,1	1	4,1

7. eranskineko taula. **Parte-hartze digitaleko jarduerarik ohikoenak 6. eta 7. jasoaldietan,, adinaren arabera (Ehuneko horrek adierazten du jarduera hori gutxienez behin egin dela azken 6 hilabeteetan)**

	30 urtetik beherakoak		30 urtetik gorakoak	
	6. jasoaldiko ehunekoak	7. jasoaldiko ehunekoak	6. jasoaldiko ehunekoak	7. jasoaldiko ehunekoak
Filmak, telesailak edo bideoak ikustea	98,9	100	92,3	95,7
Musika entzun edo deskargatzea	90	90,9	73,5	68,1
Liburuak irakurri edo deskargatzea	42,2	37,7	41,3	42,7
Liburutegira joatea	26,7	22,1	24	20,2
Kontzertuak ikustea	31,8	48,1	30,7	37,9
Ikuskizunak ikustea	11,1	18,7	9,6	19,7
Erakusketak ikustea	2,2	2,6	1,9	5,2

## 2. ERANSKINA. Aldagaien kodetzea

Aldagaia eta galdetegiko erreferentzia	Deskribapena
<b>Adina G2</b>	Aldagai jarraitu bat da, jaiotze-urtearen arabera eraikia. Gogoan izan behar da laginak, hasiera batean, 18-39 urte bitarteko norbanakoak hartzen dituela barne.
<b>Sexua G1</b>	Aldagai bitarra da, non 0 zenbakiak gizona identifikatzen duen eta 1 zenbakiak emakumea.  * Ez da erabiltzen aldatetaren analisietan, denboran zehar aldatzen ez den aldagai finkoa baita.
<b>Udalerraren tamaina G5</b>	4 kategorien arteko aldea: 1. <5.000 2. 5.000 a 20.000 bitartean 3. >20.000 4. Hiriburuak
<b>Seme-alabekin bizitzea G6a</b>	G6 aldagaia birkodetuta eraiki da: seme-alabekin bizi direnak (1. kategoria) eta seme-alabekin bizi ez direnak (0 kategoria). Bizikidetzatza-moduen aldagaiaren bidez heltzen zaio seme-alaben gaiari.  * 3. jasoaldira arte baino ez da erabili.
<b>Seme-alabak izatea G6b</b>	Seme-alaba kopuruaren inguruko galdera zuzena.  * 3. jasoaldian gehitu zen.
<b>Amaitutako ikasketamailak G7</b>	Guztira 8 kategoria daude, amaitutako ikasketamailarik baxuenetik altuenera antolatuta.
<b>Hizkuntza G10</b>	Inkestatuak erosoan darabilen hizkuntzari egiten dio erreferentzia. Euskaratik (1) gaztelaniara (3) doa; «biak» (2) aukera ere badago. «Beste batzuk» aukera kendu egin da (kasu bakarra zegoen).
<b>Soldata/lan bat izatea G12</b>	G12 aldagaia 2 talde handitan birkodetuz eraikitzen da: ekonomikoki mendekoak (1 zenbakiarekin kodetua: ikasleak, langabetuak eta desgaitu iraunkorrak) eta independenteak (0 zenbakiarekin kodetua: beren konturako edo besteren konturako langileak).
<b>Diru-sarrerak G14a</b>	Hileko diru-sarreraren 6 tarte, diru-sarrerarik gabe mailatik 2000 baino gehiagoko diru-sarrerak mailara arte.
<b>Zailtasun ekonomiko subjektiboa G14b</b>	1 etik 10era, txikitik handira hilabete bukaerara iristeko zailtasunak neurtzen ditu.

<p><b>Oinordean hartutako kultura-kapitala</b></p>	<p>Hurrengo aldagaiak batuz eraikitzen da, horien neurketa estandarizatuz, eta Otik 1 era mailakatur:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburuak etxean haurtzaroan</li> <li>• Musika-tresnak haurtzaroan</li> <li>• CD-grabagailua, irratia, musika-ekipoa edo binilozko diskoak haurtzaroan</li> <li>• Idatzizko prentsa etxean haurtzaroan</li> <li>• Museo edo galerietara, antzokira, ikuskizunetara, dantzara, kontzertuetara, liburutegietara edo zinemara joatea haurtzaroan.</li> <li>• Haurtzaroko kultura-jarduerak: irakurtzea, marraztea, istorioak idaztea, musika jotzea.</li> </ul> <p>Maiztasun-aldagaiak 5 kategoriekin daude osatuta: Sekula ez, behin, bitan, 3-5 aldiz eta 5 baino gehiagotan. Maila bakoitza 0 eta 1 bitarteko balioak emateko mailakutzen da.</p> <p>Beste aldagaiak birkodetzearen ondorio dira, 0-1 bitarteko kontsumo-mailaren arabera</p> <p>* Ez da erabiltzen aldaketaren analisisetan, denboran zehar aldatzen ez den aldagai finkoa baita.</p>
<p><b>Amaren eta aitaren ikasketa-maila G15a eta G15b</b></p>	<p>Ikasketa-maila aldagaia bezalaxe.</p> <p>Ez da modu sistematikoan barneratzen; izan ere, 1. jasoaldian ikusi zenez, haren eragina zeharkakoa zen batez ere, oinordean hartutako kultura-kapitalaren arabera.</p> <p>* Ez da erabiltzen aldaketaren analisisetan, denboran zehar aldatzen ez den aldagai finkoa baita.</p>
<p><b>Denbora librea G22 G23</b></p>	<p>1 etik (asti gutxi) 4ra (asko), denbora librea neurtzen du aste barruan (G22) edo asteburuan (G23).</p>
<p><b>Kultura-jardueraren garrantzia G24</b></p>	<p>1-10 bitarteko eskala batean norbanakoarentzat kultura-jardueretan parte hartzeak duen garrantzia neurtzen du.</p>
<p><b>Motibazio kultural nagusia G27</b></p>	<p>Kontsumo kulturalerako motibazio ezberdinak neurtzen dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Sentipen berriak bidez, egunerokotasunetik irtetea (emozionala)</li> <li>2. Nire ezagutza hobetzea (kulturala)</li> <li>3. Pertsona gisa errealizatzea. Nire interes eta premia pertsonalak asetzea (sinbolikoa)</li> <li>4. Esperientzia partekatzea, nire inguruko jendearekin harremanetan egotea (soziala)</li> </ol> <p>Dikotimizatu egiten da, batera birkodetuz, alde batetik, beharrian sozialak eta emozionalak (1) eta, bestetik, beharrian sinboliko eta kulturalak (2).</p>
<p><b>Zaletasun eta okupazio alternatiboak G29</b></p>	<p>0-1 bitartean aldatzen den indize bat da (gutxiagotik gehiagora), beste zaletasun edo okupazio batzuei eskainitako denboraren arabera eraikia.</p> <p>Bateraezinak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirola</li> <li>• Bideo-jokoak</li> <li>• Etxeko zereginak</li> </ul> <p>Bateragarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gastronomia</li> <li>• Turismoa</li> <li>• Lagunak</li> </ul>

<p><b>Asoziazionismoa G54</b></p>	<p>Kultura-elkarteren batean duen parte-hartzeari buruzko informazioa jasotzen da:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Bakar batean ere ez</li> <li>2. Batean</li> <li>3. Bat baino gehiagoan</li> </ol>
<p><b>Kultura-abonua G44</b></p>	<p>Jarduera/ekipamendu baterako kultura-abonuren bat izatearekin ala ez izatearekin lotutako informazioa jasotzen da:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>0. Ez</li> <li>1. Bai</li> </ol>
<p><b>Ibilbide subjektiboa</b></p>	<p>Inkesta bete duenak berak aurreko jasoaldiarekin alderatuz berarengan hautematen duen bilakaera-ibilbidea jasotzen da.</p> <p>Parte-hartze maila orokorra begiratzen da.</p> <p>3 kategoria ditu: Nire parte-hartze kulturala jaitsi, mantendu edo igo egin da.</p>
<p><b>Arrazoi subjektiboak (Hautaketa anizkuna + arrazoi nagusia)</b></p>	<p>Jasoaldien artean kultur arloko parte-hartzean izan den bilakaerarekin lotutako arrazoi zerranda bat da. Norberak hautemandako ibilbideari buruz galdetzen da.</p> <p>Norbanakoek garrantzitsutzat jotzen dituzten arrazoiak modu anizkoitzean hautatzeaz gain, beren ustez arrazoi nagusia dena ere hautatzen dute.</p>
<p><b>Parte-hartze sortzailea</b></p>	<p>0-1 bitarteko indize bat da (gutxiagotik gehiagora), burutzen diren kultura-jardueren kopurua neurtzekoa. Guztiek dute garrantzi bera. Aldagai dikotomikoak dira.</p> <p>Honax indizean sartzen diren aldagai/jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Idaztea</li> <li>• Margotzea</li> <li>• Arte plastikoak</li> <li>• Argazkigintza*2. jasoaldian ez zen sartu; izan ere, aldagaiak ehuneko anomalo bat hartu zuen, interpretazioa alboratzen zuena.</li> <li>• Bideoa</li> <li>• Ikus-entzunezkoak</li> <li>• Bertsolaritza</li> <li>• Antzerkia</li> <li>• Dantza</li> <li>• Musika</li> <li>• Beste batzuk</li> </ul>
<p><b>Parte-hartze hartailea</b></p>	<p>0-1 bitarteko indize bat da (gutxiagotik gehiagora), indizean garrantzi bera duten aldagaietatik abiatuz kontsumoaren intentsitatea neurtzekoa.</p> <p>Honakoak dira aldagaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurritako liburu kopurua</li> <li>• Ikusi-entzundako kontzertu kopurua</li> <li>• Zinemara joateko maiztasuna</li> <li>• Ikuskizunetara joateko maiztasuna</li> <li>• Erakusketetara joateko maiztasuna</li> </ul> <p>Maiztasun-aldagaiak 5 kategoriekin daude osatuta: Sekula ez, behin, bitan, 3-5 aldiz eta 5 baino gehiagotan. Maila bakoitza 0 eta 1 bitarteko balioak emateko mailakatzen da.</p> <p>Beste aldagaiak birkodetzearen ondorio dira, 0-1 bitarteko kontsumo-mailaren arabera.</p>

<p><b>Kontsumoaren aniztasuna / Orotariko kultura</b></p>	<p>0-1 bitarteko indize bat da (gutxiagotik gehiagora), indizean garrantzi bera duten aldagaietatik abiatuz kontsumoaren Aniztasuna neurtzekoa. Aldagai dikotomikoak dira (bai/ez).</p> <p>Honakoak dira aldagaiok:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zinema</li> <li>• Liburuak</li> <li>• Kontzertuak</li> <li>• Erakusketak</li> <li>• Zirkua</li> <li>• Haurrentzako antzerkia</li> <li>• Antzerkia</li> <li>• Dantza</li> <li>• Musika</li> <li>• Bertsolaritza</li> <li>• Magia</li> <li>• Literatura-jaialdia</li> <li>• Opera</li> </ul>
<p><b>Parte-hartze digitala</b></p>	<p>Aldagai dikotomikoetatik abiatuz (bai/ez) 0-1 bitartean kontsumo digitala neurtzen duen indize bat da, eta aldagai hauek hartzen ditu kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Internetez musika entzun edo deskargatzea</li> <li>• Internetez liburuak irakurri edo deskargatzea</li> <li>• Internetez telesailak, filmak edo bideoak ikustea</li> <li>• Internetez ikuskizunak ikustea</li> <li>• Internetez kontzertuak ikustea</li> <li>• Internetez erakusketak ikustea</li> <li>• Internetez liburutegian sartzea</li> </ul>
<p><b>Ibilbide objektiboa (Jasoaldien arteko aldea, jarraitua)</b></p>	<p>Parte-hartze hartzaileko, sortzaileko eta digitalerako kalkulatu da.</p> <p>Jasoaldi bateko eskalen emaitzei aurreko jasoaldiko emaitzak kentzetik lortutako emaitzari dagokio.</p> <p>Prozesua dagokion atalean zehazten da.</p>
<p><b>Ibilbide objektiboa (Jasoaldien arteko aldea, kategorien araberakoa)</b></p>	<p>Jasoaldien arteko aldea (Jarraitua) 5 kategoriatan birkodetzen da: lgoera (nabarmena edo neurritzkoa), mantentzea eta jaitsiera (nabarmena edo neurritzkoa).</p> <p>Prozesua dagokion atalean zehazten da.</p>